

42. FITXA Energia berriztagarriak erabiltzen dituzten bero eta hotz sareen proiektuetarako pizgarri-programen lehen deialdia

Norentzat: Jarduera ekonomikoren bat egiten duten erakundeak (1. pizgarri-programa). Jarduera ekonomikorik egiten ez duten erakundeak, sektore publiko instituzionala barne, eta, horren barruan, **toki-erakundeak (2. pizgarri-programa).**

Sarbide-esteka: [IDAE, Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko - Institutua](#)

Eremuak: Energia

Zenbatekoa: 100.000.000 €

Aurkezpen-hasiera eta -amaiera data (gutxi gorabeherakoa):
2022/09/26tik 2022/11/11ra (14ak arte)

Laburpena

Energia berriztagarriko iturriak erabiltzen dituzten bero eta hotz sareen proiektuek jaso ahal izango dute laguntza. Era berean ekoizpena, banaketa-sareak eta bero zein hotzaren kontsumitzaileentzako konexioak eta instalazioak egiteko inbertsio-jarduerak barne hartu ahal izango dira, betiere honako tipologia hauen barruan badaude:

- a) Energia sortzeko zentral berria eta banaketa-sare berria.
- b) Lehendik dagoen energia sortzeko zentrala handitzea edo ordeztea.
- c) Lehendik dauden konexioak eta banaketa sarea zabaltzea.

Eskatzaile berak diruz lagun daitekeen proiektu bat baino gehiago aurkeztu ahal izango du, baina eman beharreko laguntzak ezin izango du 15.000.000 euroko muga gainditu proiektu eta onuradun bakoitzeko, eta proiektu bakoitzeko 450.000 euroko gutxieneko inbertsioa egin beharko da.

Proiektuen ezaugarriak

Energia berriztagarrien iturriak erabiltzen dituzten bero eta hotz sareen proiektuak, energia berriztagarrietan oinarritutako dibertsifikazio energetikoa lortzeko eta, horren ondorioz, erregai fosilekiko mendekotasun energetiko txikiagoa izateko eta CO2 eta metano isurketak murrizteko.

Hauek dira diruz lagun daitezkeen jarduketak:

- 1.1. 1. TIPOLOGIA (T1). **Sortze-zentral berria eta banaketa-sare berria:** Nahitaez energia-iturri berriztagarriak soilik erabiltzen dituzten beroa zein hotza sortzeko zentral bat edo batzuk eta kontsumo-zentroetarako energia-trukerako konexioa duten banaketa-sare bat edo batzuk eduki behar dituzten instalazio berriak.
- 1.2. 2. TIPOLOGIA (T2). **Lehendik dagoen sorkuntza-zentrala handitzea:** Lehendik dagoen banaketa-sare bati beroa zein hotza ematen dion sortze-zentral bat handitzea. Proiektu mota honetan, lehendik

dagoen sare baten beroa zein hotza sortzeko ahalmena handitu besterik ez da egingo, sorkuntza-ekipo berriak sartuz. Beroa edota hotza sortzeko ekipo berriek eta lehendik daudenek energia-iturri berriztagarriak soilik erabili behar dituzte.

1.3. 3. TIPOLOGIA (T3). **Lehendik dauden konexioak eta banaketa sarea zabaltzea:** Lehendik dagoen banaketa-sare bat zabaltzea, bere konexioen bidez beroa edota hotza emango duena, kontsumo-zentro berrietara iristeko. Proiektu mota honetan, lehendik dagoen sare baten beroa zein hotza banatzeko eta konektatzeko ahalmena handitu baino ez da egingo. Beroa edota hotza sortzeko dagoen gaitasunak energia-iturri berriztagarriak bakarrik erabili behar ditu.

Eskaera bakarra egin beharko da aurreikusitako Pizgarrien Programetako edozeinetan laguntza jaso nahi duen instalazio bakoitzeko.

Gastuetarako aldi hautagarria

Eragin bultzatzailea. **Ekipoak eskatzeko lehen konpromiso irmoaren data** edo inbertsioa atzeraezin bihurtzen duen beste konpromisoren baten data izango da jarduera ekonomikoa duten onuradunentzako lanen hasiera mugarrria. Jarduera ekonomikorik ez duten onuradunen kasuan, ez da onartuko oinarri arautzaileak argitaratu aurreko konpromisorik.

1. pizgarrien programa: onuradunak laguntza-eskaera erregistratu ondoren hasiko dira diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak.
2. pizgarrien programa: diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak laguntza horiek arautzen dituzten oinarriak Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren hasi behar dira.

Instalazioek erabat amaituta eta operatibo egon beharko dute 2025eko urriaren 31 baino lehen, eta onuradunak data hori amaitu baino lehen bidali beharko ditu deialdiaren II. eranskineko 2. atalean aipatutako agiri guztiak.

Laguntzen zenbatekoa eta mota

Norgehiagoka-araubideko laguntzak, itzuli beharrik gabekoak. Aurrerakina eskatzeko aukera. **Inbertsiorako** laguntzak.

Proiektua amaitu eta ziurtatu ondoren kobratuko da laguntza.

Laguntzaren zenbatekoa = Oinarrizko laguntza + Laguntza gehigarria

- a. Proiektuaren laguntza: Diruz lagundu daitezkeen kostu guztien gaineko ehunekoa.
- b. Laguntza gehigarria, enpresaren tamainaren arabera: 1. programarako bakarrik.
 - Enpresa handia: %0
 - Enpresa ertaina: %5
 - Enpresa txikia: %10
- c. Demografia-erronkagatiko laguntza gehigarria: 5.000 biztanle arteko udalerrietan edo 20.000 biztanle arteko udalerrri ez-hiritarretan egindako proiektuak, baldin eta 5.000 biztanle edo gutxiagoko herriguneak badituzte. (+% 5 aurrekoen aldean).

Oinarrizko laguntzari dagokionez, hauek dira erreferentziako instalazioaren unitate bakoitzeko kostuaren balioak, diruz lagun daitezkeen gehieneko unitateko kostuak eta oinarrizko laguntzaren intentsitateak, lehen deialdian aplikatzekoak direnak:

1. programa:

Diruz lagun daitekeen kostua unitateko

Tipologia	Energia berriztagarri iturria	Unitateko gehieneko kostu hautagarria (Ukhmax)	Erreferentziako instalazioaren unitateko kostua (Ukf)
T1 Sortze-zentral berria eta banaketa-sare berria	Biomasa	950€/kW	70 €/kW
	Geotermia	2.070 €/kW	130 €/kW
	Eguzkia-termikoa	1.520 €/kW	0 €/kW
	Beste iturri berriztagarri batzuk (1)	1.020 €/kW	130 €/kW
T2 Lehendik dagoen sorkuntza-zentrala handitzea	Biomasa	500 €/kW	70 €/kW
	Geotermia	1.620 €/kW	130 €/kW
	Eguzkia-termikoa	1.070 €/kW	0 €/kW
	Beste iturri berriztagarri batzuk (1)	570 €/kW	130 €/kW
T3 Lehendik dauden konexioak eta banaketa sarea zabaltzea	-	450 €/kW	0€/kW

(1) Bero-ponpa duten aerotermia eta hidrotermia instalazioak barne hartzen dira.

Oinarrizko laguntza

Tipologia	1. Pizgarrien programa
T1	%35
T2	%35
T3	%35

+ % 5eko plusa erronka demografikoko udalerrietako jarduketetarako (< 5.000 biztanle)

+ % 5eko plusa enpresa ertainentzat eta % 10ekoa enpresa txikientzat

2. programa:

Diruz lagun daitekeen kostua unitateko: erreferentziako inbertsioaren kostua 0 da.

Tipologia	Energia berriztagarri iturria	Unitateko gehieneko kostu hautagarria (Ukhmax)
T1	Biomasa	950€/kW
	Geotermia	2.070 €/kW
	Eguzkia-termikoa	1.520 €/kW
	Beste iturri berriztagarri batzuk	1.020 €/kW
T2	Biomasa	500 €/kW
	Geotermia	1.620 €/kW
	Eguzkia-termikoa	1.070 €/kW
	Beste iturri berriztagarri batzuk	570 €/kW
T3	-	450 €/kW

Laguntza (2. programa)

Tipologia	1. Pizgarrien programa	2. Pizgarrien programa
T1	%35	%70
T2	%35	%70
T3	%35	%70

Gehienez 15 milioi euro proiektuko.

Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak

Honako kontzeptu hauek hartuko dira kostu hautagarritzat:

a. Laguntzaren xede diren jarduketa-tipologiaren berezko ekipoak:

- Erregaiak deskargatzeko, biltegitatzeko, prestatzeko, tratatzeko eta elikatze sistemak. Iturri berriztagarrietatik (1. eta 2. tipologiak) beroa zein hotza sortzeko ekipoak, sistemak eta instalazioak.
- Makina-gelak, bero-sorgailuak, hotz-sorgailuak, metagailuak, inertzia-biltegiak, trukagailuak, ponpak, kolektoreak, instrumentazioa eta beroa zein hotza sortzeko zentralen berezko beste ekipo eta sistema batzuk (1. eta 2. tipologiak).
- Beroa edota hotza garraiatzeko eta banatzeko sistemak, azpiestazioak eta kontsumo-puntuetikiko konexioak (1. eta 3. tipologiak).

b. Sistema elektrikoak, hidraulikoak, ponpaketa, instrumentazioa eta osagarriak, ekipamendu elektromekanikoak.

c. Kontrol, monitorizazio eta komunikazio sistemak instalazioari lotutako kontrol-zentroarekin.

d. Energia-eskaera kudeatzeko, kontrolatzeko eta monitorizatzeko sistemak.

e. Obra zibila.

f. Instalazioak garraiatzea eta muntatzea, abiaraztea, kalitate-kontrolak eta saiakuntzak egitea.

g. Proiektuak eta memoria teknikoak egitea eta idaztea.

Laguntzaren xede diren jarduketa-tipologiekin zerikusia duten zuzendaritza fakultatiboa.

i. Obraren eta muntaiaren segurtasuna eta osasuna koordinatzea.

j. Proiektua egiteko eta instalazioa dimentsionatzeko beharrezkoak diren saiakuntzak, azterketak, zundaketak eta probak.

k. Laguntza-eskaeraren kudeaketa-kostuak. Eskatutako laguntzaren zenbatekoaren %4 gainditzen ez duten kudeaketa-gastuak bakarrik izango dira hautagarriak, gehienez ere 3.000 euroko mugarekin espediente bakoitzeko.

l. Jarduketak egin izanaren justifikazioaren kudeaketa-kostuak

m. Kontu-ikuskariaren txostena justifikazio-kontuari buruz.

n. DNSH printzipioko betebeharrak betetzeari dagozkion kostuak.

o. Behar bezala justifikatutako beste partida batzuk, berariazko beharrezkotzat jotzen direnak.

Eranskin honetako 4.1 puntuko «k», «l» eta «m» idatz-zatietan adierazitako gastuak ordaintzeko Pizgarrien Programetan onartutako gehieneko kostu hautagarri osoak ezin izango du gainditu eskatutako laguntzaren zenbatekoaren %7, eta 10.000 euroko muga izango du espediente bakoitzeko.

Ez dira onuradunaren langile-gastuak finantzatu.

Balorazio-irizpideak

Balorazio irizpidea	Gehieneko puntuazioa
1. Irizpide ekonomikoa: eskatutako dirulaguntzaren zenbatekoa murriztea	40
2. Bideragarritasun ekonomikoaren irizpidea. Proiektuaren izapidetze-egoera.	15
2.1. Administrazio-baimena eta proiektuaren onarpena	3
2.2. Obra-lizentzia	5
2.3. Beroa edota hotza erosteko kontratuak	7
3. Irizpide teknikoa eta erakuslea	20
3.1. Berrikuntza	5
3.2. Sarearen energia-eraginkortasuna	10
3.3. Eragin erakuslea	5
4. Kanpo-eragin positiboak	25
4.1. Trantsizio justua eta erronka demografikoa	8
4.2. Energia berriztagarrien komunitateak	4
4.3. Gizartean eta generoan duen eragina	7
4.4. Erakunde publikoak	2
4.5. Enpresaren tamaina	2
4.6. Autonomia-erkidegoko edota tokiko gobernuak egindako txostena	2
GUZTIRA	100

Intereseko beste alderdi batzuk

Aldez aurretik kobratu nahi izanez gero, berme gehigarriak eskatuko dira.

Jabetzari eta diruz lagundutako jarduerari 5 urtez eutsi beharko zaie, laguntza kobratzen denetik zenbatzen hasita.

Deialdiak Next Generation funtsak ditu, eta 7. Osagaiko 1 Inbertsioei lotuta dago.